



45/2024 EBAZPENA, URTARRILAREN 17KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN INFORMATIKAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUN LANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN / ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN, EKONOMIAKO ETA FINANTZAKO ZUZENDARITZAKO INFORMATIKAKO ETA INFORMAZIO SISTEMEN ZUZENDARIORDETZA, INFORMAZIO- ETA KUDEAKETA-SISTEMEN ETA UNITATEAN.

LANPOSTUA: ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA - INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Informatikako eta Informazio Sistemen Zuzendariordetza, Informazio- eta Kudeaketa-sistemen Unitatea.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:3. HE, derrigortasun-datarik gabe.

BETEKIZUNAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko CV aplikazioan badaude).

- Goi-mailako unibertsitate-titulazioa izatea Informatikako lizentziadun/ingeniari gisa.

MEREZIMENDUAK:

Merezimendu hauek baloratuko dira:
SAPeko prestakuntza espezifikoak: SAP ziurtagiria, masterra edo antzekoa.

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea eta lanpostua jabetzan izatea Zuzendaritza Nagusian, Informatikako Goi Mailako Teknikari gisa.

- Mugikortasun horizontalaren xede diren destinoen kategoria / lanpostu funtzional berdina izatea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo lan-legepeko kontratudun langile finkoa izatea.





- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea; hain zuzen: Informatikako lizentziaduna/ingeniaria.
- Informatikako Goi Mailako Teknikaria kategorian ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-legepeko kontratudun finkoko izendapenik, izendapen edo kontratu horrekiko daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.
- Osakidetza Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 186/2005 19 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta EPEaren azken deialdian Informatikako Goi Mailako Teknikaria kategoriaren oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunetako eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-legepeko langilea izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Informatikako Teknikaria kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundearen.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA: (agiri bidez egiaztatu beharko dira).

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu).
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunetako eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoriaren azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera. (gehienez, 47,5 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

BALORATZEKO EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK

- Proiektuen kudeaketako metodologietan esperientzia eta ezagutzak izatea.
- Esperientzia izatea erabiltzaile askoko SAP inguruneetan.
- Esperientzia izatea ABAP/4 programazioan.
- Esperientzia eta ezagutza izatea SAPen finantza-kudeaketaren arloan: finantza-kontabilitatea (FI), kostuen kontabilitatea (CO), aktibo finkoen kontabilitatea (AF), fakturazio elektronikoen izapidetzea (VIM)...
- Esperientzia eta ezagutza izatea SAPen arlo logistikoan: materialen eta erosketen kudeaketa (MM), biltegien kudeaketa (WM), salmenten arloa (SD), kontratazio-espeditteen izapidetzea (RSM)...
- Oracle datu-baseetan eta PL/SQL lengoaian esperientzia eta ezagutza izatea.
- XML eta web services teknologietan esperientzia eta ezagutza izatea.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45), beren datu pertsonal guztiekin eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenek izan ezik).

Eskabideak aurkezteko epea hogeit egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Behin betiko barne-mugikortasuna Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-eginkizunak: Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.

4. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkoa buru dela, eta honako hauek osatuko dute: Informatikako eta Informazio-sistemetako zuzendariordeak, Aplikazioak Garatzeko eta Mantentzeko zerbitzuburuak eta Horniketako Zerbitzu Korporatiboko buruak (azken horrek idazkari-lanak egingo ditu).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua ezar dakiokete Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 17a.


Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
Luisa Larrauri Ereñozaga